

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio Orokorraren urteko kontuak**

**Cuentas anuales de la Administración General
de la Comunidad Autónoma de Euskadi**

2022







AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK	7
I. SARRERA	9
II. IRITZIA	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	10
III. IRITZIAREN OINARRIA	10
III.1 Legea betetzeari buruzko iritziaren oinarria	10
IV. GOBERNU- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA	11
V. HKEE-REN ERANTZUKIZUNA	11
VI. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
VI.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea	12
VI.2 Langileria	12
VI.3 Dirulaguntzak	13
VI.4 Kontratazioa	14
VI.4.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak	14
VI.4.2 2022an esleitutako espedienteak	14
VI.4.3 Kontratu txikiak	16





ERANSKINAK	17
A.1 2022ko ekitaldiko urteko kontuak.....	17
A.2 Araudi aplikagarria	22
A.3 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna.....	23
A.4 Aurrekontuko aldaketak.....	24
A.5 Langileria	25
A.6 Funtzionamendu-gastuak	26
A.7 Transferentziak eta dirulaguntza korronteak eta kapitalezkoak	27
A.8 Inbertsio errealak.....	29
A.9 Aktibo finantzarioen gehikuntza	30
A.10 Tasak eta bestelako sarrerak.....	31
A.11 Transferentziak eta dirulaguntza korronteak eta kapitalezkoak	32
A.12 Aktibo finantzarioak gutxitzea.....	33
A.13 Kobratzeke eta ordaintzeke dauden hondarrak	33
A.14 Diruzaintza.....	34
A.15 Aurrekontuz kanpoko eragiketak	34
A.16 Zor publikoa.....	35
A.17 Abalak eta birfidantzamenduak.....	36
A.18 Konpromiso-kredituak.....	36
A.19 Kontratazioa	38
A.20 Dirulaguntzen analisia	44
 ALEGAZIOAK	 47





ABREVIATURAS.....	59
I. INTRODUCCIÓN.....	61
II. OPINIÓN	62
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	62
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	62
III. FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN	62
III.1 Fundamento de la opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	62
IV. RESPONSABILIDAD DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO Y DIRECCIÓN	63
V. RESPONSABILIDAD DEL TVCP	63
VI. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	64
VI.1 Presupuestos y contabilidad	64
VI.2 Personal	64
VI.3 Subvenciones	65
VI.4 Contratación	66
VI.4.1 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores.....	66
VI.4.2 Expedientes adjudicados en 2022.....	67
VI.4.3 Contratos menores.....	68





ANEXOS	69
A.1 Cuentas anuales del ejercicio 2022.....	69
A.2 Normativa aplicable.....	74
A.3 Estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera	75
A.4 Modificaciones presupuestarias	76
A.5 Personal	77
A.6 Gastos de funcionamiento	78
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital	79
A.8 Inversiones reales	81
A.9 Aumento de activos financieros.....	82
A.10 Tasas y otros ingresos.....	83
A.11 Ingresos por transferencias corrientes y de capital	84
A.12 Disminución de activos financieros	85
A.13 Residuos pendientes de cobro y pago.....	85
A.14 Tesorería	86
A.15 Operaciones extrapresupuestarias	86
A.16 Deuda pública	87
A.17 Avals y reafianzamientos	88
A.18 Créditos de compromiso	89
A.19 Contratación	90
A.20 Análisis de subvenciones	96
ALEGACIONES.....	99

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 25a
Vitoria-Gasteiz, a 25 de abril de 2024





LABURTZAPENAK

ADIF	Trenbideetako azpiegituren administratzailea.
AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
APKLEO	Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
BEEP	Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana.
BEM	Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa.
BERC	Basque Excellence Research Centre.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
EAATB	1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina Onartu eta EAEko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEAOL	11/2021 Legea, abenduaren 23koa, 2022ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana, 2012ko ekainaren 25eko Agindu bidez onartutakoa, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena.
EAO	Estatuko Administrazio Orokorra.
EB	Europar Batasuna.
EBS	Elkarrekiko Berme Sozietatea.
EGF	Europako Gizarte Funtza.
EHTSB	Euskadiko trenbide sare berria.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
EIBM	Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoa
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
EKKLTB	2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
ETE	Enpresa txikiak eta ertainak.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

FEADER	Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsa.
FEAGA	Bermeen Nekazaritzako Europako Funtsa.
FEDER	Eskualdearen Garapen Ekonomikorako Europako Funtsa.
FEMP	Itsasoko eta Arrantzuko Europako Funtsa.
FFAA	Foru aldundiak.
GET	Euskal Trenbide Sarea.
GKE	Gobernu Kontseiluaren Erabakia.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
IEEP	Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Plana 2022-2024.
LGSS	Larrialdietako garraio sanitarioaren sarea.
LH	Lurralde historikoa.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
TTEE	Toki entitateak.



I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), berau arautzen duen otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Urteko Lan Programan xedatutakoaren arabera, 2022ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren urteko kontuen fiskalizazio txosten hau egin du.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den araudia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematea, zuzenbide publikoko diru-sarrerak eta gardentasuna.
- Kontularitzakoak: Urteko kontuak ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatu den aztertu da.

Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren akatsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, lan honen behin-behineko emaitzak 2022ko abenduaren 20an Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Ekonomia Kontroleko Bulegoari helarazi zitzaizkion, egindako fiskalizazioari dagokionez interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin eta agiriak aurkez zitzaizkion.

Alegazio guztiak aztertu eta baloratu dira, eta txosteneko testua ezabatu edo aldatu egin da komenigarri iritzi zaionean, eta bere horretan eutsi zaio txostenean deskribatutako egoera berresten duten azalpenak direla uste izan bada, edo justifikazioekin bat ez badatoz edo adierazitako adierazpenak dokumentu bidez justifikatzen ez badira. Alegazio horiek txosten honi txertatu zaizkio.





II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, Iritziaren oinarria izeneko atalean azaldutako ez-betetzeak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak zuzentasunez bete du 2022. ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jardura arautzen duen lege araudia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, eta 2022ko aurrekontuaren likidazioko 1. oharretik 4.era bitartean adierazitakoa aintzat hartuta, honekin batera aurkeztutako EAEko Administrazio Orokorraren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan adierazten dute 2022ko ekitaldiko ekonomiaren jardura, 2022ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza, bai eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiruzko fluxuena ere, aplikagarri den finantza informazioko arau esparruari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraikiz.

III. IRITZIAREN OINARRIA

Gure lana Fiskalizazioaren oinarritzko printzipioen eta sektore publikora egokitutako nazioarteko auditoretza-arauen arabera egin dugu. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu HKEEren Erantzukizunaren V. atalean.

EAEko Administrazio Orokorrarekiko independenteak gara, otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta fiskalizazio publikoko jardura arautzen duen araudian eskatutakoaren arabera gure fiskalizazioari aplikagarriak zaizkion etikako eta independentzia babesteko eskakizunei jarraikiz.

Gure ustez, eskuratu dugun auditoretzako ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du aldeko fiskalizazio finantzarioari eta legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia plazaratzeko, salbuespenekin.

III.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1.- Ikastetxeetan obrak egiteko bi espediente (21 eta 22 zenbakiak), hurrenez hurren 794.607 eta 102.904 euroan esleitutakoak, SPKLren 120. artikuluan aurreikusitako salbuespenezko larrialdi-prozeduraren bidez izapidetu dira, eta ez da behar bezala justifikatu prozedura horren erabilera, egin beharreko jarduketak gauzatzean berehalakotasunik ez delako izan (A.19 eranskineko A8 akatsa).

2.- 2022ko maiatzaren 3ko, ekainaren 28ko eta urriaren 18ko eta 2023ko urtarrilaren 31ko eta martxoaren 7ko Gobernu Kontseiluek, EKKLTBren 24.4 artikuluan aurreikusitako salbuespenezko prozeduraren bidez, 2022ko ekitaldiari dagozkion obligazio aitortuak ordaintzeko baimena eman dute, 118,3 milioi euro guztira; ordea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketa horien kontrako txostena egin zuen. Gastu hauek honako hauei





dagozkie: 89,6 milioi euroren 48 zerbitzu-kontraturi; 14,5 milioi euroren 9 hornidura kontraturi; 1,1 milioi euroren 3 obra kontraturi; 12,9 milioi euroren 3 hitzarmeni, 169.584 euroren dirulaguntza-espedita bati eta 20.979 euroren ondare-kontratu bati. Ez-betetze nagusiak izan dira prestazioak dagokion kontratu-espedita izapidetu gabe eta kontratu-araudian ezarritakoaren arabera legozkiekeen printzipioak bete gabe egitea. Gainera, 31,9 milioi euro erabaki horiek onartu aurretik ordaindu zituzten (ikus A.19).

IV. GOBERNU- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA

Ekonomia eta Ogasun Sailak urteko kontuak egiteko erantzukizuna du, EAEko Administrazio Orokorraren erakundeko ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta aurrekontuaren exekuzioaren isla zuzena erakusteko, aplikagarria den finantza-informazio publikoaren arau-esparruaren arabera (zeina memoriako 2. oharrean identifikatu baita) eta urteko kontuak iruzurratetik edo akatsagatik oker materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotako barne-kontrola egiteko.

2023ko uztailaren 27an, Ekonomia eta Ogasun Sailak kontu horiek argitara eman eta egun berean jarri ditu gure esku, fiskalizatu eta Legebiltzarrera bidaltzeko, aztertu eta izapidetu dezaten.

Gainera, EAEko Administrazio Orokorreko kudeaketa- eta gobernu-organismoek bermatu behar dute ekitaldian zehar egindako jarduerak, aurrekontuko eta finantzako eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datorrela aplikagarriak zaizkien arauekin; berebat, egoki iritzitako barne-kontrolako sistema bat ezarri behar du, gauzatutako jarduerak legezko ez-betetzetik ez duela bermatzeko.

V. HKEE-REN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko segurtasun bat izatea adierazteko finantza-egoerek, oro har, ez dutela iruzur edo errore baten ondoriozko oker materialik eta kontu horietan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikagarria zaien araudiarekin, gure iritzia jasoko duen fiskalizazio-txosten bat jaulkitzeko.

Arrazoizko ziurtasuna izateak ziurtasun maila handia dagoela esan nahi du, baina ez du bermatzen kanpo kontrolako organismoak arautzen dituen araudiaren arabera egindako fiskalizazioak beti akats materiala aurkituko duenik, halakorik dagoenean. Akatsak iruzur edo errore baten ondorio izan daitezke eta/edo legea ez betetzearen ondorio, eta materializat jotzen dira Epaitegi honen irizpideak aplikatuta, baldin eta arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabakietan eragina izango dutela.



VI. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten akatsak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

VI.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

- Egoeraren balantzeak ez du ibilgetuaren hainbat kontu-sail osatzen duten ondasun guztien xehetasun banakaturik, hala nola: instalazio teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, tresnak eta altzariak, aplikazio informatikoak, eta abar. Elementuak erositako urtearen arabera taldekatuta erregistratzen dira. Modu horretan erregistratutako zenbateko osoa 149,6 milioi euro da.
- EAeko sektore publikoko urteko kontuetan jasotako informazioak EKKLTBren 8. artikulua eta EAATBren 124. artikulua eskatzen duten gutxieneko informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EAeren sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia-, finantza- eta ondare-egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.
- Hartzekodunen konkurtsoan dagoen hirugarren baten zorra (34,4 milioi euro), hau da, zor exekutibo osoaren % 60, irizpide orokor horri jarraikiz % 50ean hornitu da. Zenbatekoa eta konkurtso-egoera kontuan hartuta, zor horren kobragarritasunaren zenbatespena banan-banan egin behar zatekeen, irizpide orokorra aplikatu beharrean (ikus A.10).
- Konpromiso-kredituen egoera-orriak ez ditu jasotzen ekitaldian 8,1 milioi euroan hartutako konpromisoak, ezta aurreko ekitaldietan konprometitutako 300.000 euro ere.

VI.2 LANGILERIA

- Ekitaldi itxieran indarrean zeuden Lanpostu Zerrendek ez zituzten 2022ko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten 1.091 lanpostu barne hartu, honako xehakapen honen arabera:

LANGILERIA MOTA	Plaza kopurua
Justiziako langileak	769
Hezkuntza Saileko lan kontratupeko langile ez-irakaslea.....	313
Tokiko farmazialari sanitarioak	6
Hainbat sailetako langileak.....	3
GUZTIRA	1.091

- Gomendagarria litzateke lanpostuen zerrenden egoerari buruz eskuragarri dagoen informazioa ekitaldi bakoitzaren itxiera-datan eguneratzea, urte arteko bilakaeraren jarraipena egitea errazteko.



- Ez dago jasota Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena, EAEko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak onartzen dituen Lehen lehendakariorde eta Segurtasun sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduari dagokionez, ezta lan-kontratuko langileen 315 lanposturen deialdietarako eta horien oinarri espezifikoak onartzeari dagokion txostena ere (ikus A.5).

VI.3 DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza zuzenak

A.20 eranskinean jasotako 19 dirulaguntza zuzen aztertu ditugu eta honako hau atzeman dugu:

- 2022an, 5,4 milioi euroren zuzeneko 9 dirulaguntza eman dira, aurreko bi ekitaldietakoren batean helburu bererako jada baimendu zirenak, eta honenbestez, 2022ko aurrekontuetan dirulaguntza izendun modura sartu zitezkeen (A1 akatsa).
- Aparteko konturako ordainketa bidezko 3,6 milioi euroren 2 dirulaguntzatan ez dira justifikatzen ordainketa-erregimen hori baliatu ahal izateko baldintzak, EAEHONALTBrén 49.11 artikulua agindutakoaren arabera (A2 akatsa).
- Kalteberatasun-egoeran dauden auzoen hiri-berroneratze integralerako emandako 14 dirulaguntzatan, guztira 84,2 milioi euro, ez dira zehazten kalteberatasun-egoera berean dauden beste auzo batzuen aldean auzo jakin bati dirulaguntza ematea justifikatzen duten arrazoiak (A3 akatsa).

Lehiari lotutako dirulaguntzak

14 dirulaguntza lerro arautzen dituen arautegia aztertzean -A.20 eranskinean daude jasoak-, honako akats hauek azaleratu dira:

- Aztertutako lerroetako bat (9 zenbakia) ez dago dirulaguntzen plan estrategikoan sartuta, eta beste hirutan (2, 4 eta 6 zenbakiak), plan horren aldaketa deialdia egin ondoren gauzatu da; ordea, nahitaezkoa da aldez aurretik egitea, DLoren 8.1 artikulua agintzen duen moduan (B1 akatsa).
- Aztertutako 9 lerrotan (1, 2, 4, 5, 8, 10, 12, 13 eta 14 zenbakiak), gomendagarria litzateke aurrekontu-memorian edo programa berriak garatzeko aurreikusitako neurrietan adierazle batzuk sartzea, proiektu eta pertsona edo erakunde kopuruaren kuantifikatze hutsa egitera mugatu gabe, haien eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatze bide emango dutenak (B2 akatsa).
- Aztertutako lerroetako batean (8 zenbakia), ez da argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera, EAEHONALTBrén 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta horrek, gainera, errefusatzeko eskubidea benetan erabiltzea eragozten du (B3 akatsa).



- Aztertutako lerroetako batean (13 zenbakia), arautegiak eskabideak aurkezteko ezartzen duen epea EAEHONALTBren 51.1 artikuluan ezarritako gutxieneko hilabeteko epea baino laburragoa da (B4 akatsa).
- Berrikusi diren lerroetatik batean (1 zenbakia) komenigarria izango zatekeen DLOren 31. artikuluan xedatutakoa jasotzea, zeinak agintzen baitu hiru eskaintza eskatu behar direla baldin eta diruz lagundutako gastuak kontratu txikiaren mugak gainditzen baditu (B5 akatsa).
- Aztertu diren lerroetatik batean (12 zenbakia), arautegiak ez du ezartzen onuradunak obligazioa duela Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta HKEEk eskatzen dien informazioa emateko, EAEHONALTBren 51.1.k artikuluan agintzen duen moduan (B6 akatsa).
- Aparteko konturako ordainketa bidezko 3 dirulaguntza lerrotan (1, 4 eta 10 zenbakiak) ez dira justifikatzen ordainketa-erregimen hori baliatu ahal izateko baldintzak, EAEHONALTBren 49.11 artikulua agindutakoaren arabera (B7 akatsa).
- Aztertu diren 3 lerrotan (1, 3 eta 11 zenbakiak) ez dira laguntzak emateko ebazpenak argitaratu, EAEHONALTBren 49.2 artikulua agintzen duen moduan (B8 akatsa).

VI.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren edo eragina izan duten lehenagoko ekitaldietan esleitutako 13 espedienteko lagina eta 2022an esleitutako 23 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.19 eranskinean dago xehatua.

VI.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 5,7 milioi euroan esleitutako 3 obra-espedientetan (3, 4 eta 8 zenbakiak), azken ziurtagiria onartzeak gainditu egiten du SPKLren 243.1 artikuluan aurreikusitako gehieneko epea (D1 akatsa).
- LGSSrako garraio sanitarioaren zerbitzuaren espedienteen (12 zenbakia), 939.444 euroren zenbatekoa ordaindu da kontratuaren oreka ekonomikoari eutsi ahal izateko kontzeptu pean, Covid-19aren pandemiak esleipendunen plantillan eragindako lan-absentismoa handitu izanaren ondorioz. Zerbitzu-kontratua den aldetik, ez zaizkio aplikagarriak SPKLren 290. artikuluko aurreikuspenak, zerbitzu-emakidako kontratuei bakarrik aplikatzen baitzaizkie; hala ere, bazegoen beste aukera batzuk aplikatzea kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko, bereziki “aurreikusi ezineko arriskuaren” jurisprudentzia-doktrina (D2 akatsa).

VI.4.2 2022AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- EAeko Administrazioa eta beste erakunde batzuk gas naturalez hornitzeko espedienteen (23. zenbakia), 18 milioi euroan esleitutakoan, ez dago justifikatuta behin betiko bermea jartzetik salbuestea, SPKLren 107.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (A1 akatsa).





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 97 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (29, 30 eta 31 zenbakiak), pleguetan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan xedatutakoarekin; izan ere, hasierako kontratuan aurreikusi ez diren zerbitzuak eta prezioak barne hartzen ditu, eta horiek kontratuaren xedea funtsean aldatzea dakarte (A4 akatsa).
- 73,4 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (29 eta 31 zenbakiak), balio zenbatetsiaren kalkulua ez dator bat SPKLren 101. artikuluan ezarritakoarekin, ez baitu pleguetan aurreikusitako aldaketen zenbatekoa jasotzen (A5 akatsa).
- Txurdinagako bi lurzatiren inguruko urbanizazio-espediente bat (18. zenbakia) prozedura ireki sinplifikatu bidez izapidetu eta 1,7 milioi euroan esleitu da; espediente horretan gainditu egin da SPKLren 159.4 artikulua arabera balio-judizioen mende dauden irizpideak baloratzeko gehieneko epea (A2 akatsa). Gainera, eskaintzen anormaltasuna zehazteko baldintza-agirietan ezarritako parametroak ez datoz bat SPKLren 149.2.b) artikuluan aurreikusitakoarekin, ez baitute eskaintza osoa aintzat hartzen (A7 akatsa).
- Urdaibaiko azpiegitura berdearen ibilbidea egiteko espedientean (20. zenbakia), 2 milioi euroan esleitu, balio-judizioen mende dauden irizpideak baloratzeko txosten teknikoek ez dituzte emandako puntuazioak arrazoitzen (A3 akatsa).
- Aleko prezioetan eta 20,8 milioi euroko gehieneko aurrekontuarekin esleitutako 2 espedientetan (32 eta 35 zenbakiak), ez da kostuen xehakapenik jasotzen, ezta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua kalkulatzeko edo zehazteko modua justifikatzen duen azterketa ekonomikorik ere, SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (A9 akatsa).
- Guztira 81,6 milioi euroan esleitutako 10 espedientetan (14, 15, 16, 17, 18, 25, 28, 33, 34 eta 35 zenbakiak) gainditu egin da SPKLren 158. eta 159. artikulua esleipenerako finkatutako gehieneko epea (B1 akatsa).
- Ikastetxeetako 2 obra-espedientetan (21 eta 22 zenbakiak), 794.607 eta 102.904 euroan esleitutakoetan, hurrenez hurren, eta larrialdietako salbuespenezko prozeduraren bidez izapidetutakoetan, esleipenak ez dira argitaratu ez kontratatzailearen profilean, ez kontratuen erregistroan (B2 akatsa).
- Ibilgailu hibrido entxufagarriak eta elektrikoak hornitzeko espedientean, hiru lotetan guztira 1,5 milioi euroan esleitutakoan (25 zenbakia), gainditu egin da kontratistei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik entregatzeko gehieneko epea, eta ez da espedienterik izapidetu pleguetan aurreikusitako zigorrek ezartzeko (C3 akatsa).

Gainera, espediente SPKLren 119. artikuluan aurreikusitako presako prozeduraren bidez izapidetu da, eta ez da behar bezala justifikatu prozedura hori erabili behar izatea (A6 akatsa). Bestalde, guztira 825.687 euroan esleitutako 2. eta 3. loteetan ez dago ibilgailuen harrera akta formalik, SPKLren 210. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (C2 akatsa).

Gainera, pleguetan aurreikusi gabeko 2. lotearen aldaketa, zeinak kontratuaren unitate-kopurua murrizten baitu, behin kontratua amaitu ondoren izapidetu eta onartu da (C4 akatsa).





- Aleko prezioetan eta 38,4 milioi euroren gehieneko aurrekontuarekin esleitutako 2 espedientetan (30 eta 32 zenbakiak), esleipen-ebazpenak eta kontratuak ez dute adierazten onartutako aurrekontuak gehieneko izaera duela, SPKLren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren arabera (B3 akatsa).
- EBk finantzatu eta 3 milioi euroan esleitu den ikastetxeetan pantaila interaktiboak hornitzeko, instalatzeko eta konfiguratzeko espedientean (27. zenbakia), unitateen zati baten norakoa esleitzeko ebazpenean zehaztasunik ezak eta ikastetxeekiko koordinazio ezak atzerapenak ekarri ditu kontratua amaitzean (B4 akatsa).
- Ikastetxeetako obren 3 espedientetan (14, 15 eta 16 zenbakiak), 41,4 milioi euroan esleitutakoetan, kontratazio-organoak ez du lan-programa onartu, pleguetan eta APKLEOren 144. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (C1 akatsa).

VI.4.3 KONTRATU TXIKIAK

- Guztira 2,8 milioi euroren zenbatekoan egindako ondasun eta zerbitzuen 257 eskuraketa berrikusi ditugu, honako sail hauek gauzatutakoak: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 62, Segurtasun Sailak 57, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 55, Hezkuntza Sailak 53, Lehendakaritza 7, Ekonomia eta Ogasun Sailak 17, Osasun Sailak 4 eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2; guztiak ere zuzenean egin direla ikusi dugu, zenbatekoa dela-eta zegokion lizitazio-prozedura izapidetu beharrean, zeinak, gutxienez, ireki sinplifikatu laburtua izan beharko zukeen.
- Hezkuntza Sailaren obra txikien eta kontzeptu homogeneousen gastuak (6,2 milioi euro) batera izapidetu behar ziratekeen, ahalik eta lehia handiena bermatzen duten prozeduren bidez.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU KORRONTEA						
Euroak, milioikotan						
SARRERAK KAPITULUA	HASIER. AURREK.	ALDAK.	B. BETIKO AURREK.	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBRATUA	KOBRATU GABE
2. Zeharkako zergak	3,7	-	3,7	3,7	3,2	0,5
3. Tasak eta bestelako sarrerak (A.10)	66,6	74,0	140,6	233,5	164,2	69,3
4. Transf. eta dirulag. korronteak (A.11)	11.131,6	294,2	11.425,8	12.033,9	11.869,3	164,6
5. Ondare-sarrerak	0,1	-	0,1	0,2	0,2	-
6. Inbertsio errealeen besterentzea	-	-	-	1,0	1,0	-
7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.11)	214,3	329,1	543,4	606,9	589,0	17,9
8. Finantza-aktiboen gutxitzea (A.12)	261,9	894,8	1.156,7	29,1	25,4	3,7
9. Finantza-pasiboen gehikuntza (A.16)	1.429,6	-	1.429,6	496,6	496,6	-
GUZTIRA	13.107,8	1.592,1	14.699,9	13.404,9	13.148,9	256,0

Euroak, milioikotan						
GASTUAK KAPITULUA	HASIER. AURREK.	ALDAK.	B. BETIKO AURREK.	OBLIGAZ. AITORTUAK	ORDAINDU ORDAIND.	ORDAINDU GABE
1. Pertsonaleko gastuak (A.5)	2.467,8	59,0	2.526,8	2.500,2	2.500,0	0,2
2. Funtzionamendu gastuak (A.6)	4.225,0	290,5	4.515,5	4.373,0	4.014,2	358,8
3. Gastu finantzarioak (A.16)	190,5	(48,7)	141,8	141,5	141,4	0,1
4. Transf. eta dirulaguntza korronteak (A.7)	3.907,0	523,0	4.430,0	4.239,1	3.965,4	273,7
6. Inbertsio errealak (A.8)	435,7	(57,3)	378,4	185,1	119,9	65,2
7. Kapitalezko dirulaguntza eta transf. (A.7)	990,7	560,9	1.551,6	1.156,7	843,9	312,8
8. Finantza-aktiboen gehikuntza (A.9)	144,7	264,7	409,4	380,0	380,0	-
9. Pasibo finantzarioen gutxitzea (A.16)	746,4	-	746,4	746,2	746,2	-
GUZTIRA	13.107,8	1.592,1	14.699,9	13.721,8	12.711,0	1.010,8

AURREKONTU ITXIAK (A.13)				
Euroak, milioikotan				
	ZORRA 21.12.31N	KOBR./ ORDAINK.	BALIOGAB.	ZORRA 22.12.31N
Diru-sarrerak	445,3	325,7	(12,5)	107,1
Gastuak	1.047,4	994,3	(10,1)	43,0

KREDITU KONPROMETITUAK (A.18)			
Euroak, milioikotan			
KAPITULUA	HASIERA URTEA		
	AURREKO URT.	2022	GUZTIRA
1. Pertsonaleko gastuak	-	12,9	12,9
2. Funtzionamendu-gastuak	140,2	241,8	382,0
4. Transferentziak eta dirulaguntza korronteak	81,6	102,5	184,1
6. Inbertsio errealak	14,8	131,8	146,6
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulaguntzak	263,4	555,4	818,8
8. Aktibo finantzarioen gehikuntza	131,8	90,7	222,5
GUZTIRA	631,8	1.135,1	1.766,9





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI JARRITAKO OHARRAK

1. **oharra.** EAEren Administrazioari diruz lagungarri diren gastuak dirulaguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei edota dirulaguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraikiz. Irizpide horren ondorioz, 2022ko abenduaren 31n badira oraindik eskagarriak ez diren ordainketa-obligazioak, 40,1 milioi euroren zenbatekodunak.
2. **oharra.** 2022ko abenduaren 31 arte jasotako funts komunitarioetatik zati bat, 1.556,7 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake, eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak diruzaintza geldikinarene gainean izan dezakeen eragina. Nolanahi ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izango denik.
3. **oharra.** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak (85,31 milioi euro) urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren zati dira. Aurrekontuaren egikaritzak ez du zenbateko hori islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraikiz erregistratzen baititu.
4. **oharra.** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek 2023tik 2027ra bitarteko urteetan 136,1 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten du, zeinak urte horietako EAEren Aurrekontu Orokorretan jasoko diren, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.

ZORPETZEA (*)	Euroak, milioikotan
SALDOA 21.12.31N	10.595,8
Zorra jaulkitzea	500,0
Amortizazioa	(746,2)
SALDOA 22.12.31N (A.16)	10.349,6
(*) Balio nominala	

2022KO EMAITZA ETA 22.12.31N DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak, milioikotan
Diruzaintza geldikina 21.12.31n	2.279,9
2022ko ekitaldiko aurrekontu emaitza	(319,3)
Aurrekontu korrontearen emaitza	(316,9)
Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza (A.13)	(2,4)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 22.12.31N	1.960,6

DIRUZAINZTA GELDIKINAREN GAUZATZEA 2022.12.31N	Euroak, milioikotan
DIRUZAINZTA (A.14)	4.466,3
KOBRATZEKOAK	393,2
Indarrean den ekitalditik kobratzeke dauden eskubideak	256,0
Itxitaiko ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak	107,1
Zordunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.15)	30,1
ORDAINZTEKOAK	(2.898,9)
Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak	(1.010,8)
Itxitaiko ekitaldietako ordaintzeke dauden obligazioak	(43,0)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.15)	(1.845,1)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 22.12.31N	1.960,6





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2022.12.31N		Euroak, milioikotan
Diruzaintza geldikina 22.12.31n		1.960,6
Geldikin atxikia:		
Ikastetxe publikoetarako geldikina	(98,8)	
Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa.....	(284,7)	
Zalantza kobrantzako eskubideak		
Bestelako eskubide aitortuak	(31,8)	
Diru-bilketa, betearazte bidean.....	(44,6)	
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak (A.17)	(20,5)	
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2022.12.31N		1.480,2

EGOERA FINANTZARIOAK

BALANTZEA			Euroak, milioikotan		
AKTIBOA	2022	2021	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2022	2021
AKTIBO EZ ARRUNTA	5.544,4	5.193,4	ONDARE GARBIA	(3.028,9)	(3.270,2)
labilgetu ukiezina	60,3	53,2	Sortutako ondarea	(3.302,4)	(3.547,8)
labilgetu materiala	2.897,0	2.876,6	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(3.584,1)	(4.296,9)
Epe luz. finantza inb., taldeko erak.....	2.398,3	2.032,7	Ekitaldiko emaitzak	281,7	749,1
Epe luz. finantza inbertsioak	130,5	160,6	Bst. ondare igoerak, emaitz. egozteke.....	273,5	277,6
Zord. eta kobr. bst. kont. batz. epe luz....	58,3	70,3	PASIBO EZ-KORRONTEA	10.355,6	10.593,9
AKTIBO KORRONTEA	4.888,3	5.082,2	Epe luz. zuzkidurak	24,3	21,8
lzakinak	125,4	80,1	E/luzeko zorrak	10.288,7	10.531,3
Zordunak eta kobr. bst. kont. b.....	294,3	413,8	Hartzek. eta ordain. bst. kont. b. epe luz.....	42,6	40,8
Epe motz. finantza inbertsioak	2,3	1,3	PASIBO KORRONTEA	3.106,0	2.951,9
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz.	4.466,3	4.587,0	Zorrak epe lab.....	272,5	246,4
			Taldeko erakund. zorrak, epe lab.	1.442,0	1.288,2
			Hartzekod. eta ord. beste kontu batz	1.391,5	1.417,3
AKTIBOA, GUZTIRA	10.432,7	10.275,6	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.	10.432,7	10.275,6





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak, milioikotan	
		2022	2021
Zerga-sarrerak		14,0	12,4
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak		12.597,2	12.355,1
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea		23,0	18,8
Amaitutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinen bariozioa eta balioaren narriadura		47,4	36,0
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk		134,9	122,6
Hornidura soberakinak		6,9	8,8
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		12.823,4	12.553,7
Pertsonaleko gastuak		(2.500,2)	(2.359,7)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak		(5.395,1)	(4.925,5)
Hornidurak		(52,5)	(37,7)
Kudeaketa arrunteko beste Gastu batzuk		(4.363,7)	(4.212,0)
Ibilgetua amortizatzea		(102,9)	(98,4)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(12.414,4)	(11.633,3)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA: AURREZKIA (AURREZKI-EZA)		409,0	920,4
Ibilgetu ez-finantzarioa besterenganatzeagatik			
balio narriadura eta emaitzak eta salgai dauden aktiboak		3,3	1,9
Korronteak ez diren beste partida batzuk		37,6	(5,9)
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK		449,9	916,4
Sarrera finantzarioak		12,5	10,5
Gastu finantzarioak		(158,1)	(142,9)
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arrazoizko balioaren aldakuntza		0,1	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak		(22,7)	(34,9)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		(168,2)	(167,3)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA: AURREZKIA (AURREZKI-EZA)		281,7	749,1

ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

1.- ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA		Euroak, milioikotan	
	SORTUTAKO ONDAREA	BST. ONDARE. IGOERA BATZUK	GUZTIRA
ONDARE GARBIA, 2021EKO EKITALDIAREN BUKAERAN	(3.547,8)	277,6	(3.270,2)
Kontularitzako irizp. aldatzeag. doiketak eta akats zuzenketa	(36,3)	-	(36,3)
2022KO EKITALDIKO DOITUTAKO HASIERAKO ONDARE GARBIA	(3.584,1)	277,6	(3.306,5)
2022KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN BARIAZIOAK	281,7	(4,1)	277,6
Ekitaldian aitortutako sarrera eta gastuak	281,7	(4,1)	277,6
ONDARE GARBIA, 2022KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(3.302,4)	273,5	(3.028,9)

2.- AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA		Euroak, milioikotan	
		2022	2021
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA AURREZKIA (AURREZKI-EZA)		281,7	749,1
Ondare garbian zuzenean aitortutako sarrerak eta gastuak			
Bestelako ondare sarrerak		1,8	83,1
Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo kontu sailaren hasierako baliora transferentziak			
Bestelako ondare gehikuntzak		(5,9)	(4,6)
DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA		277,6	827,6





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA	Euroak, milioikotan	
	2022	2021
KUDEAKETA JARDUERETAKO DIRU-FLUXU GARBIAK		
Kobrantzak	12.948,5	12.758,8
Zerga-sarrerak.....	13,9	11,7
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	12.777,0	12.595,4
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	15,9	17,0
Interesak eta dibidendu kobratuak.....	3,6	3,9
Bestelako kobrantzak.....	138,1	130,8
Ordainketak	12.523,9	11.534,8
Pertsonaleko gastuak.....	2.522,5	2.342,2
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	5.416,9	4.807,6
Hornidurak.....	42,6	51,6
Bestelako kudeaketa gastuak.....	4.351,9	4.170,2
Ordaindutako interesak.....	141,4	143,4
Beste ordainketa batzuk.....	48,6	19,8
Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk	-	178,9
Kudeaketa jardueretako diru-fluxu garbiak	424,6	1.402,9
INBERTSIO JARDUERETAKO DIRU-FLUXU GARBIAK		
Kobrantzak	30,2	126,6
Inbertsio errealeen salmenta.....	3,2	3,1
Aktibo finantzarioen salmenta.....	19,9	72,2
Inbertsio jardueretako beste kobrantza batzuk.....	7,1	51,3
Ordainketak	496,6	370,3
Inbertsio errealeen erosketa.....	115,8	154,5
Aktibo finantzarioen erosketa.....	373,6	190,1
Inbertsio jardueretako beste ordainketa batzuk.....	7,2	25,7
Inbertsio jardueretako diru-fluxu garbiak	(466,4)	(243,7)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak	669,6	1.638,0
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk.....	496,6	1.165,1
Jasotako maileguak.....	-	472,9
Beste zor batzuk.....	173,0	-
Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak	746,2	668,1
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk.....	150,8	313,5
Jasotako maileguak.....	595,4	354,6
Finantzaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(76,6)	969,9
SAILKATZEKO DAUDEN ESKUDIRUZKO FLUXU GARBIAK	(0,1)	-
ERAKUNDE AUTONOMOEKIKO ZORREN BARIAZIOA	(2,2)	34,7
ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA		
ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK	(120,7)	2.163,8
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. hasieran	4.587,0	2.423,2
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit amaieran	4.466,3	4.587,0



A.2 ARAUDI APLIKAGARRIA

Hona hemen 2022an EAEren Administrazio orokorraren aurrekontuen ekonomia kudeaketan eta likidazioan eragina duten arau nagusiak:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- Urriaren 7ko 4/2021 Legea, Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko Metodologiari buruzkoak, 2022-2026 aldiari ezargarri zaiona.
- 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, 2022ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen.
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.

Aurkeztutako aurrekontuen likidazioak kontu ematearen prozesua arautzen duen Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren legegintzako dekretuko 124. artikuluan zehaztutako informazioa eta egoerak barne hartzen ditu:

- Ekitaldiko emaitzak: aurrekontu korrontearen eta aurreko ekitaldietako eragiketengatiko superabita edo defizita.
- Ekitaldiko diruzaintzako kontua.



- Ekitaldiko likidazioko kontua.
- Programatutako aurrekontuko helburuen betetze-mailaren memoria.

2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko aginduz onetsitako EAEKPP planean ezarritakoari jarraiki aurkeztu dira. Kontu horiek besarkatzen dituzte balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbian egindako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria, eta memoria.

A.3 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

AEFILOk arautzen ditu Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko alderdiak. Azken xedapenetako hirugarrenak ezartzen du, lege honetan xedatutakoa EAERI aplikatzeak ez duela eragotziko Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legean xedatutakoa, zeinak 48. artikuluan Estatuarekin koordinazioa eta lankidetzaz aurreikusten baitu aurrekontu-egonkortasunaren arloan, eta 62. artikuluan ezartzen baitu, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren eginkizunen artean, aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzaz eta koordinazio-konpromisoak adostea.

2020ko martxoaren 11ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabaki bitartez, aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak zehaztu ziren 2021-2023 aldirako. Akordio hori finkatzeko, oinarritzat hartu ziren aurreikuspen makroekonomikoak eta Ministro Kontseiluak 2020ko otsailaren 11n adostutako aurrekontu-egonkortasunaren bidea berrikustean aurreikusitako defizitaren eta zor publikoaren jarraibideak. Horren bidez, egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak ezarri ziren 2020-2023 aldirako administrazio publiko guztientzat. Lehia bidezko norgehiagoka

Covid-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, Ministro Kontseiluaren 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kongresuari eskatu zitzaion azter zezala ezohiko larrialdi-egoera, Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta LOEPSFren 11.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta eten egin zen Ministro Kontseiluaren 2020ko otsailaren 11ko Erabakia, 2021-2023 aldirako egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak ezartzen zituen. Ondorioz, 2022ko ekitaldiari dagokionez ez da aplikagarria aipatutako helburuak betetzea eta erreferentzia soil modura hartu behar dira.

Ildo horretan, Ogasun Ministerioak 2023ko maiatzean egindako aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuen jarraipen-txostenak, AEFILOren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2022ko ekitaldiari dagokionez, aurreko adierazleen neurketan eskuratutako datuak baizik ez ditu erakusten. EAERI dagozkion datuak honako hauek dira:

	BPGaren g. %
Aurrekontuaren egonkortasuna Finantzaketarako gaitasuna (superabita)	0,0
Zor publikoa	13,3
	2021eko gastuaren g. %
Gastuaren araua (gastuaren igoera)	8,3





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen 2022ko ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketen xehakapena kapituluka:

GASTUEN AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETAK							Euroak, milioikotan	
Kapitulua	Zabal- Kuntzak	Gai- Kuntzak	Geldik. Gehikun.	Hitzar- Menak	Eskumen Berriak	Transferentziak Norak. Jatorria	Aldak. Guztira	
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	16,8	6,3	-	-	115,4 (79,5)	59,0	
2. Funtzionamendu-gastuak	-	113,0	36,8	-	-	316,2 (175,5)	290,5	
3. Gastu finantzarioak	-	-	-	-	-	5,5 (54,2)	(48,7)	
4. Transferentziak eta dirulag. korranteak	22,6	91,9	18,4	3,7	141,4	440,7 (195,8)	523,0	
6. Inbertsio errealak	540,8	31,5	58,9	-	-	112,0 (800,4)	(57,3)	
7. Kapital transf. eta dirulag.	-	295,0	196,1	-	-	294,2 (224,4)	560,9	
8. Aktibo finantzarioen gehikuntza	-	3,9	15,0	-	-	249,4 (3,6)	264,7	
GUZTIRA	563,4	552,1	331,5	3,7	141,4	1.533,4 (1.533,4)	1.592,1	
% , hasierako aurrekontuaren gainean	% 4,3	% 4,2	% 2,5	-	% 1,1	% 11,7 (% 11,7)	% 12,1	

Ekitaldian 563,4 milioi euroan egindako kreditu-zabalkuntzak eta 331,5 milioi euroren kredituen gehikuntza Diruzaintzako Geldikinen kontura finantzatu dira. Kreditu-zabalkuntza horien helburu esanguratsuenen artean, honako hauek bereizi behar dira: Osakidetzako langileen garapen profesionalaren maila ebaluatzeko eta aitortzeko prozedura berriaren finantzaketa (318,4 milioi euro), Enplegu Politika Aktiboen Europako Funttsaren 2021eko likidazioa (64,9 milioi euro) eta Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko lehen sektoreari ematen zaizkion laguntzak (36 milioi) Handitu programaren bidez finantzatzen dituen Erreskate Ekonomikorako Funttsa. Aurreko ekitaldietako kredituen gehikuntzei dagokienez -238,6 milioi euro, guztizkoaren gainean % 72,0- Berreskuratze eta Erresilientzia mekanismoari (MRR)

Ekitaldian izandako kreditu gaikuntzak honako sarrera hauei dagozkie:

GAIKUNTZAK	Euroak, milioikotan
Erresist. eta Erresilien. mekanismotik jasotako funtsak.....	371,1
Finantza autonomia duten ikastetxeak.....	82,8
EBtik jasotako sarrerak.....	42,7
Efizientzia energetikoa.....	40,0
Gas kontsumoan industria intentsiboen programa	14,9
Beste batzuk	0,6
GUZTIRA	552,1





A.5 LANGILERIA

Hona hemen 2022ko plantilla eta obligazio aitortuak:

PLANTILLA ETA OBLIGAZIO AITORTUAK					Euroak, milioikotan
	AURREKONTUKO PLANTILLA		OBLIGAZIO AITORTUAK		%
	22.01.01	21.01.01	2022	2021	BARIAZIOA
LANGILERIA MOTA					
Goi kargudunak	176	172	14,5	13,8	% 5,1
Behin-behineko langilea.....	99	99	6,1	5,7	% 7,0
Funtzionarioak (*).....	27.449	26.770	1.234,1	1.164,1	% 6,0
Ertzaintza.....	8.000	8.000	341,0	328,4	% 3,8
KONTZEPTUA		D FASEA	
EHU Eraldaketa digitaleko programak, unibertsitatea+hezkuntza eta ospitale birtualak			2,9
Deustuko Unibertsitatea. Eraldaketa digitaleko programak, unibertsitatea+hezkuntza eta ospitale birtualak.....			0,7
Euskampus fundazioa. Mugaz gaindiko lankidetzeta-laboretegien sarea			0,5
Mondragon Unibertsitatea Eraldaketa digitaleko programak eta unibertsitatea+hezkuntza.....			0,3
Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartea. Greziako errefuxiatuentzako jantokiaren proiektua			0,2
Materials Physics Center Elkartea. Teknologia kuantikoen ikerketa indartzea			0,2
Artium Fundazioa Bizirik dauden euskal artistei obra garaikideak erostea			0,2
Euskampus fundazioa. Zientzia eta teknologia sozializatzeko eta zabaltzeko proiektua			0,2
Seaska-Iparaldeko Ikastolen Federazioa elkartea. Euskara Plana egitea			0,2
GUZTIRA			5,4

Dirulaguntza horien onuradunek zuzeneko dirulaguntzak jaso zituzten aurreko bi ekitaldietakoren batean, kontzeptu berberengatik (A1 akatsa).





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

Euroak, milioikotan

KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO	
		KREDITUA	AKATSA
Innobasque	3,5	-	-
AZTI Fundazioa, EUMAP Fundazioa	2,8	-	-
EHU, Banako ordainsari osagarriak	17,2	-	-
Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Bilboko Hiri Trenbidearen finantzaketa	66,4	-	-
Euskal Editorea. Berria aldizkaria argitaratzea	1,4	5,9	-
GUZTIRA	91,3	5,9	-

DEIALDI PUBLIKO BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Euroak, milioikotan

KONTZEPTUA	A/D FASEA	KONPROMISO	
		KREDITUA	AKATSA
Bultzatu programa Errusia-Ukraina gatazkaren eraginagatik enpresentz. laguntzak	19,9	-	-
Administrazioko ikastetxeak. Jolasguneetako obrak	1,5	0,1	-
GUZTIRA	21,4	0,1	-

DIRULAGUNTZEN ARAUDI ARAUTZAILEA

Euroak, milioikotan

SAILA / KONTZEPTUA	DEIALDIAREN ZENBATEKOA	AKATSA
LANA ETA ENPLEGUA		
1. Gizarte-ekonomian ekitea	5,0	B2,5,7,8
2. Aparteko laguntzak galera ekonomikoak dituzten gizarte-ekonomiako enpresentzat Ukrainako gerraren ondoriozkoak	5,0	B1,2
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
3. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko jarduketak (PRTR- F. NextGenerationEU)	4,1	B8
4. Bultzatu programa Errusia-Ukraina gatazkaren eraginagatik enpresentzako laguntzak	20,0	B1,2,7
EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA		
5. EAEko nekazaritza-sektorerako ezohiko laguntzak, Errusia-Ukraina gatazkagatik	14,1	B2
6. Handitu 2022 programa. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzak	25,0	B1
7. Handitu 2022 programa. Inbertsio handietarako laguntzak, nekazaritza-ekoizpeneko berrikuntza teknologikoari dagozkionak	5,0	-
HEZKUNTZA		
8. Hezk. Administrazioiko ikastetxeak. Udalaren jabetzako aisia-guneetako obrak.	7,0	B2,3
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA		
9. Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea, energia-eraginkortasuna sustatzeko (PRTR- F. NextGenerationEU)	39,1	B1
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK		
10. Zigortuak birgizarteratzeko proiektu komunitarioak	6,2	B2,7
11. 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeak laguntzak	4,0	B8
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
12. Covid-19 laguntzak zinema-emanaldietako eta zuzeneko musika-aretoak eta zuzeneko musika-sustapena kudeatzen duten profesional pribatuei, 2022an	2,0	B2,6
13. Eguneroko komunikabideentzako laguntzak, Covid-19 pandemiaren eragina dela eta	6,0	B2,4
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA		
14. Merkataritza modernizatzeak programa, Euskal Autonomia Erkidegorako Funts Teknologikoa (PRTR- F. NextGenerationEU)	2,1	B2





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak, milioikotan	
Akatsak	Kopurua	Emandako Zenbatekoa
DIRULAGUNTZAK		
A1. Izendun moduan sar zitezkeen aurrekontuetan, salbuespenezko edo ezusteko egoeren ondorio ez izateagatik	9	5,4
A2. Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da behar bezala justifikatu gabe	2	3,6
A3. Ez dira zehaztu dirulaguntza emateko arrazoiak	14	84,2
ARAUDIA		
B1. Ez dago sailaren plan estrategikoaren aldaketarik edo deialdiaren ondoren aldatu da	4	89,1
B2. Ez dira eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko adierazleak gehitzen	9	67,4
B3. Ez da argitaratu emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera	1	7,0
B4. Eskabideak aurkezteko epea hilabetetik beherakoa da	1	6,0
B5. Arauak ez du agintzen eskaintzak eskatu behar direla diruz lagung. diren gastuak kontratatzeke	1	5,0
B6. Ez da jasotzen KKOari eta HKEeri informazioa emateko obligazioa	1	2,0
B7. Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da behar bezala justifikatu gabe	3	31,2
B8. Ez dira laguntzen emakida-ebazpenak argitara eman	3	13,1



ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan xedatutakoa betez, agiri honetan aurkezten dira organo kudeatzaile bakoitzak egin dituen alegazioak eta justifikazioak. Horiek guztiak Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak zentralizatu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazioaren emaitzei dagokienez (2022ko ekitaldikoak).

III. IRITZIAREN OINARRIA

III.1 SALBUESPENAK DITUEN LEGEZKOTASUN-IRITZIAREN OINARRIA

III.1.1 SALBUESPENEZKO LARRIALDI-PROZEDURA

21. Euste-horma CEIP Maestra Emilia Zuza Brun HLHIn, Santurtzin.

Jarraian, obra hau gauzatzean izandako gertakariak azaltzen dira, larrialdi-prozedura onartzea justifikatzen dutenak. Ezin daiteke hauteman berehalakotasunik eza egindako jarduketetan:

- Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak 2022ko ekainaren 9ko txosten bat helarazi zion Eraikuntza Zerbitzuari, eta, horren bidez, eskatu zuen ikastetxeko jolastokiak dauden lursailetakoko euste-hormak konpontzea larrialdi-prozeduraren bidez kontratatzeko.
- Horma horien patologia ezagunak ziren, eta lehenago konpontzen saiatu ziren, 2021eko ekainaren 10ean kontratatutako obraren bidez. Hala ere, obra hori ez zen egin. 2021eko uztailaren 2an, bilera bat egin zen ikastetxean, eta bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko teknikariak, udal-teknikariak, ikastetxeko zuzendaritza, eraikuntza-enpresako teknikariak eta zuzendaritza fakultatiboko teknikariak. Bildutako alderdi guztiek adierazi zuten proiektuan behar bezala aurreikusi gabeko arrisku bat zegoela; hau da, Pajares kaleko euste-hormak eraistea trafikoa eten gabe, kale hori baitzen Begoñako Andra Mari Egoitzarako sarbide bakarra anbulantzientzat. Hori dela eta, obra eten egin zen, eta, azkenean, kontratua hutsaldu egin zen 2022ko abuztuaren 29an, obra aurreikusitako baldintzetan egitea ezinezkoa zelako, eta ezin izan zelako proiektua aldatu.
- Euste-hormen egoera larriagotu egin denez, eta horrek arrisku larria dakarrenez pertsonentzat (ikastetxekoentzat zein aldameneko errepidetik ibil daitezkeenentzat), Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Unitate Teknikoak atzeraezintzat jotzen du horiek konpontzea, SPKLren 120. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen direla iritzita.
- Egiturazko euste-hormak direnez, ezinbestekoa da proiektu tekniko bat izatea, lanak behar bezala definitzeko. Hori dela eta, 2022ko ekainaren 20an, hasieran aurreikusitako obren zuzendaritza fakultatiboa kontratatu zen, lehendik zegoen proiektua egokitzeko, hormak konpontzeko behar-beharrezkoak diren lanetara mugatuta, eta kanpoan utzita arrisku-egoerarekin zerikusirik ez duten gainerako lanak (jolastokiak estaltzea). Bitartean, ikastetxea erabiltzen duten pertsonen kalterik ez eragiteko, jolastokiak hesitu ziren. Irailaren 12an, zuzendaritza fakultatiboak hormak konpontzeko proiektua entregatu zuen.



- Udalak berretsi zuen 2021ean egin gabeko hasierako obrari emandako obra-lizentziek obra babesten zutela.
- 2022ko urriaren 4an, proiektua hiru eraikuntza-enpresari helarazi zitzaion, eta horiek eskaintza aurkeztu zuten 2022ko urriaren 11n. Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariak, 2022ko urriaren 14an ebatzi zuen obra salbuespenezko larrialdi-prozeduraren bidez kontratatzea eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu zuen enpresarekin. Enpresa horrek Segurtasun eta Osasun Plana eta Hondakinak Kudeatzeko Plana idatzi zituen. Gainbegiratu ondoren, onartu egin ziren, eta obrak hilabeteko epean hasi ziren, 2022ko azaroaren 14an. Gauzatzeko epea 5 hilabetekoa zen, egikaritze-proiektuaren obra-planaren arabera.

22. Donostiako IES Zubiri Manteo BHIko fatxaden konponketa.

Jarraian, obra hau gauzatzean izandako gertakariak azaltzen dira, larrialdi-prozedura onartzea justifikatzen dutenak. Ezin daiteke hauteman berehalakotasunik eza egindako jarduketetan:

- 2022ko maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak premiaz eta obra txiki bidez konpondu zuen IES Zubiri Manteo BHI ikastetxeko Manteo eraikineko jolastokira irteteko ataripearen burualdea, eremu horretan hormigoizko harri-morroiloak erori zirelako, eta jausteko arriskua zuten fatxada-eremuak saneatu ziren.
- Obrak egin bitartean ikusi zen arazoa eraikinaren lau fatxadetan zegoela; beraz, lau fatxaden obrari ekin ahal izateko aurrekontuak eskatu ziren, obra txikirako. Ikusita lau fatxadak konpontzeko aurrekontua kontratu txiki baten eremutik kanpo zegoela, eta hautemandako patologien larritasuna eta berehala jarduteko beharra kontuan hartuta, larrialdi-prozedura bat izapidetzea erabaki zen 2022ko ekainaren 21ean.
- Ekainaren 23an, obra-lizentzia eskatu zen, baina ez zen abuztuaren 3ra arte eman, obra-zuzendaritza izatearen baldintzapean.
- 2022ko uztailaren 4an, obra horietarako segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat eskatu zen, lehenbailehen has zitezen.
- Atzeko fatxadako obrak, lurzatiaren barruan eta ikaslerik gabe (udako oporretan daudelako), lizentzia eman aurretik hasi ziren, premiazkoak zirelako, eta, horrela, jolastokiaren eremua bermatuta geratu zen ikasturtea hasterako. Bestalde, lizentzia ematen zenerako utzi zen bide publikora ematen duen fatxada nagusia, bide publikoa okupatzeko baimena lortu ahal izateko. Hori guztia lehen aipatutako segurtasun-neurriak hartuta.
- Gainerako fatxadak 2022ko abuztuaren 4an hasi ziren konpontzen, lizentzia lortu eta hurrengo egunean, eta 2022ko irailaren 26an amaitutzat eman ziren.
- 2022ko irailaren 2an, obra-zuzendaritza bat eskatu zen, obra hori irailaren 26an amaitu aurretik legeztatzeko.



VI. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

VI.3 DIRULAGUNTZAK

- Artium Fundazioa. Euskal artista biziei obra garaikideak erostea.
- Seaska-Iparraldeko Ikastolen Federazioa. Euskara-plana egitea.

A1 gabezia - Aurrekontuetan dirulaguntza izendun gisa sar zitezkeen, ez zegozkialako salbuespenezko edo aurreikusi ezin diren egoerei

2022ko aurrekontuak prestatzera bideratutako jarduketak egiteko unean, ez zegoen aurreikusita diruz lagundu diren bi jarduketa horien sustapen ekonomikoa. Askoz geroago erabaki zen, espediente bakoitzean behar bezala zehaztutako salbuespenezko inguruabarretan oinarrituta, bi dirulaguntzak ematea bidezkoa zela, legezko inguruabar gaitzaileak betetzen zirenez gero, eta, beraz, izenduna izateko ezintasuna gerora sortu zen.

- Urduñako Udala. Landatas eta Maria Dolores Madaria auzoetako hiri-berroneratzea eta eraikinak birgaitzea.
- Amurrioko Udala. Goikolarra auzoko hiri-berroneratzea eta eraikinak birgaitzea.

A2 gabezia. Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da justifikazio egokirik gabe.

Funtsezko elementutzat jo zen Hurbileko Bulego Teknikoak eta Kudeaketa Bulegoak (aurrerantzean, OPENGELA) gaitzeko beharra. Bulego horien helburua da auzoetako biztanleei laguntzea esku-hartzeko proiektuak izango duen irismena ezagutzen; auzoa sakon birgaitzeko aurreikusitako laguntzak bideratzea eta, horretarako, bertan bizi diren pertsonekin harreman zuzeneko izatea; eta proiektua eta obrak garatzeko prozesu osoan pertsonak laguntza tekniko eta soziala izan dezatela ahalbidetzea.

Horrela, eraikinak sakon birgaitzeko laguntzen onuradun izan daitezkeen auzotarrei ahalik eta azkarren jakinaraz dakizkien proposatutako esku-hartzearen ezaugarriak, eta esku-hartze horren bideragarritasuna eta onarpena berma dadin, lehenik eta behin, aipatutako OPENGELA jarri behar da abian, auzoen hiri-berroneratze integralaren eremuan sartutako proiektu guztietan.

Era berean, laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonak beren aldetik egin beharko duten inbertsioaren zenbatekoa ezagutu ahal dezaten –eraikinak sakon birgaitzeko egin behar den esku-hartzearen gastua osatu behar baitute–, egin beharreko obren kostua identifikatuko duten aurreproiektuak eskura izan behar dituzte lehenbailehen.

Horregatik guztiagatik, ordainketa aurreratuaren sistema justifikatuta dago, zuzeneko dirulaguntza jasotzen duen udalerriari erraztu egin behar zaiolako OPENGELA lehenbailehen martxan jartzea eta aipatutako aurreproiektuak kontratatzea.

Dirulaguntzen onuradunen baldintza espezifikoak kontuan hartuta (batez ere, baliabide gutxi dituzten herritarrak dira, 15.000 euro inguru inbertitzera behartuko direnak, nahiz eta



beren urteko diru-sarrerak kopuru horretara iritsi ez), beharrezkotzat jo da baliabide ekonomiko jakin batzuk eskura izatea ahalbidetuko duen mekanismo bat arbitratzea, toki-administrazioak zein partikularrek diru-arazorik ez izateko lanak egiten diren unearen (eta, ondorioz, lanak ordaintzen diren unearen) eta emandako dirulaguntza jasotzeko egunaren artean.

Zuzeneko 14 dirulaguntza eman dira zaurgarritasun-egoeran dauden auzoen hiri-berroneratze integralerako.

A3 gabezia. Dirulaguntza emateko arrazoiak ez dira zehaztu.

Memoriak erantsi dira, zerrendatutako zuzeneko 14 dirulaguntzak ematea justifikatzen duten arrazoiekin:

- Urduñako Udala. Landatas eta Maria Dolores Madaria auzoetako hiri-berroneratzea eta eraikinak birgaitzea.
- Amurrioko Udala. Goikolarra auzoko hiri-berroneratzea eta eraikinak birgaitzea.
- Bilboko Udal Etxebizitzak TEA Iralabarri auzoko hiri-berroneratzea.
- Elgoibarko Udala. Olasogain auzoko hiri-berroneratzea (SIGMA).
- Errenteriako Udala. Beraun auzoko hiri-berroneratzea.
- Donostiako Udala. Altza auzoko hiri-berroneratzea.
- Bermeoko Udala. Kurtzio, Zarragoitxi eta Itxasbegi auzoetako hiri-berroneratzea.
- Gasteizko Udala. Zaramaga auzoko hiri-berroneratzea.
- Sestaoko Udala. Vista Alegre auzoko hiri-berroneratzea.
- Bilboko Udala. Uretamendi auzoko hiri-berroneratzea.
- Leaburuko Udala. Txarama auzoko hiri-berroneratzea.
- Soralezko Udala. Ezozibidea auzoko hiri-berroneratzea.
- Bilboko Udal Etxebizitzak TEA Santutxuko Untzeta Parrokoaren auzuneko hiri-berroneratzea.
- Arrasateko Udala. Santa Teresa-Donztebe auzoko hiri-berroneratzea.

Lehiaren Mendeko Dirulaguntzak.

6. Handitu 2022 programa. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzak.

B1 gabezia. Ez dago jasota sailaren plan estrategikoaren aldaketarik edo deialdiaren ondoren aldatu da

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021., 2022. eta 2023. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren hirugarren aldaketan, zeina sailburuaren 2022ko irailaren 7ko Aginduaren bidez onartu baitzen, 5.4.4.10.BIS. fitxa sartu da. HANDITU programa (21. or.).





13. Eguneroko komunikabideentzako laguntzak, COVID-19aren pandemia dela eta.

B4 gabezia. - Eskabideak aurkezteko epea hilabete baino laburragoa da.

Eskaintzak aurkezteko epea hilabete baino laburragoa izatea ezarri zen, justifikazio-memoria teknikoko 9. eta 10. orrialdeetan adierazitako premiazko arrazoiengatik.

Zehazki, eguneroko komunikabideentzako dirulaguntzen kasuan, ziurgabetasun ekonomikoaren ondorioz eta pandemiak eragindako egoeragatik sektoreak finantzaketa behar zuenez, ebatzi zen nahikoa arrazoi zela premia egiaztatzeko. Sektorea egoera ekonomiko zailean zegoen, diru-sarrerak nabarmen jaitsi baitziren, eta horrek arriskuan jartzen zuen EAEn irismen handieneko komunikabideen jarduerari eustea. Gainera, epe egokitzat jotzen da, eskatzaileek eskabideak aurkeztu behar baitzituzten, bai eta desinformazioaren eta alfabetatze mediatikoaren aurkako borrokan hartutako neurri espezifikoak ere.

11. 14 urtetatik beherako seme-alaba adingabeen zaintzaileak kontratatzeko laguntzak.

B8 gabezia - Laguntzak emateko ebazpenak ez dira argitaratu.

Irailaren 7ko 102/2022 Dekretuak (14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzkoak) 11.4 artikulua haxe dio: «Laguntzak emateko ebazpenak eta horien aldaketak eman diren espedienteen zerrenda, interesdunaren aldekoak izan badira, hiru hilean behin argitaratuko da <https://www.euskadi.eus> web-orriko iragarki-taula elektronikoa. Bertan, espediente-zenbakia, laguntzaren lerroa eta emandako zenbatekoa zehaztu beharko dira».

Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko dirulaguntzen erregistro orokorrean (aipatutako web-orrian dago) ageri da laguntza horien onuradunen zerrenda.

VI.4 KONTRATAZIOA

VI.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

8. Getariako portuko kanpoko babes-dikea sendotzea.

D1 gabezia- Azken ziurtagiria epez kanpo onartzea (SPKLren 243.1).

Obra jaso eta azken ziurtagiria onartu arteko epean, obren neurketa orokorra egin zen, eta, hortik aurrera, entzunaldi-izapidea egin zen. Horren ondorioz, desadostasun handiak sortu ziren enpresa kontratistarekin, azken ziurtapenaren zenbatekoa zehazterakoan. Desadostasun horiek denboran luzatu ziren, harik eta, azkenean, 2022ko urriaren 14an, enpresa kontratistak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu zuen arte, obren neurketa orokorrarekin eta, beraz, azken ziurtapenaren zenbatekoarekin bat etorritz.

12. EAEko larrialdietako garraio sanitarioa eta larrialdietako garraio sanitarioaren sarerako (LGSS) larrialdi sanitarioetako asistentzia.

D2 gabezia - LGSSren berroreka ekonomikoagatik ordaindutako zenbateko ez-aplikagarria (SPKLren 290. art.).





Kontratua SPKLren 312. artikuluan xedatutakoaren barruan kokatu behar da, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuen berezitasunei buruzkoan; izan ere, kontratistak publiko gisa kalifikatu behar diren zerbitzuak ematen dizkie erabiltzaileei, hau da, interes orokorreko prestazio erregular eta jarraituak, ez administrazioari zuzendutakoak, herritarrei zuzendutakoak baizik. Beraz, zerbitzu publiko ororen ezaugarri den harreman hirukoitza gertatzen da, horren erpinetan hauek daudela: zerbitzuaren erabiltzaileak, zerbitzuaren titularra den administrazioa eta zerbitzua ematen duen kontratista. Hori da, hain zuzen, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu baten eskema tradizionala.

Ondorioz, larrialdietako garraio sanitarioaren kontratuak zerbitzu-kontratu baten ezaugarriak gainditzen ditu, eta zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa «desegokitzen» jo daiteke. EBko Zuzenbideak honela definitu izan du 312. artikulua: «(zerbitzu-)emakida bat da, nahiz eta formalki hala izan ez (ezin daitekeen), eta, nolana ere, nabarmendu behar dena da administrazioaren eskumen-esparruko prestazio-jarduera bat gauzatzen dela, baina hirugarren batek zeharka kudeatuta (emanda) herritarren alde». Hau da, ezin da zerbitzu-emakida gisa definitu, ez dagoelako eragiketa-arriskuaren eskualdaketarik, baina ezta zentzu hertsian zerbitzu-kontratu gisa ere, non kontratistaren prestazioa beti administrazioari berari egiten zaion.

Ildo horretan, SPKLren 312. artikulua horrek zenbait berezitasun ezartzen ditu herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuetan, eta adjudikaziodunak zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin emateko eta partikularrei zerbitzua ezarritako baldintzetan erabiltzeko eskubidea bermatzeko betebeharra ezartzen du, betiere zerbitzuaren ordena egokia zainduz; nabarmendu behar da administrazioak zerbitzuen martxa egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren zaintza-botereak gordeko dituela.

Esan bezala, zerbitzu publikoen emakida-kontratua eta zerbitzu-kontratua bereizten dituen irizpidea da eragiketa-arriskua bere gain hartzea. Kontratistak hartzen badu bere gain, zerbitzu-emakidako kontratua izango da. Aitzitik, eragiketa-arriskua administrazioak hartzen badu bere gain, zerbitzu-kontratu bat izango da. Horrenbestez, aurreko araudiarekin zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratutzat jotzen ziren kontratuak (kasu honetan gertatzen den bezala), non enpresaburuak ez baitzuen bere gain hartzen eragiketa-arriskua, orain zerbitzu-kontratuak dira. Halere, sailkapen-aldaketa horrek ez dakar berekin kontratu honetatik heldu diren harreman juridikoen egituraren aldaketarik izatea: haren bidez, izan ere, enpresaburua administrazio publiko baten titulartasuna duen zerbitzu bat kudeatzen hasiko da, eta harremanak enpresaburuaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen artean ezarriko dira zuzenean.

Hori dela eta, SPKLren 312. artikulua, zerbitzu publikoak kudeatzeko antzinako kontratuaren arau berariazkoak jasotzen dituen, erregulazio berrian komuna izango da, bai zerbitzu publikoen emakidako kontratuan -zerbitzu horiek publikoak direnean, horixe izango baita kasurik orokorrena-, bai zerbitzu-kontratuan -enpresaburuak zerbitzuaren erabiltzaileari zuzenean ematen dion zerbitzu publiko bati buruzkoa denean-.

Azaldutakotik ondoriozta daiteke «eragiketa-arriskuak» herritarrentzako zerbitzu-kontratuaren kategoria nahasia eratzea dakarrela, gainerako zerbitzu-kontratuekin zerikusi



gutxi duela eta, hala ere, zerbitzu publikoen emakidaren antz handia duela; beraz, haren araubide juridikoak ia bat etorri behar du azken horien araubidearekin. Batez ere, SPKLren 312. artikuluan araututako kontratuko zerbitzu-kontratista batek, emakidadun batek bezala, zerbitzua ustiatzeko eskubidea izango duenean. Horrek esan nahi du zerbitzua antolatu eta emateko gaitasuna duela, bai zerbitzuaren azken hartzaileek, haien alde den zuzeneko prestazioaren azken hartzaileak diren aldetik, bai administrazioak berak ordainsari gisa ordaindutako prezio baten truke.

Premisa hori ezarrita, SPKLren 290. artikulua aplikatu behar da, zerbitzu-emakidako kontratuak aldatzeari eta horien oreka ekonomikoa zaintzeari buruzkoa. Artikulu horren 4.b) apartatua haxe ezartzen da: «Egoera hauetakoren bat gertatuz gero, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri beharko da, dagokion alderdiaren mesedetan: (...) b) Administrazio publiko emakida-emaiaren jarduketek, emakidadunak bete beharrekoak izateagatik, kontratuaren ekonomiaren funtsa haustea eragiten dutenean zuzen-zuzenean».

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak egindako memoriatik ondorioztatu daitekeenez, pandemia-egoera larrian, eta larrialdietako garraio sanitarioko zerbitzuen garrantzia kontuan hartuta, zerbitzu horiek jarraitzeko premia larria gertatu zen, administrazioak hala eskatuta, eta, beraz, enpresa kontratistek pandemiak berak eragindako absentismo handiak dakarren kostua jasan dute.

Azken batean, inguruabar horiek urratu egin dute ordainsari nahikoaren printzipioa, kontratuaren ekonomiaren funtsa haustea ekarri duena, eta, ondorioz, kontratuaren oreka berrezartzea beharrezkoa da, kasuan-kasuan dagozkion neurriak hartuz, SPKLren 290. artikulua 5. aparatuari jarraikiz.

VI.4.2 2022AN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

23. Gas naturalaren hornidura. Hiru lote.

A1 gabezia - Justifikatu gabe salbuestea behin betiko bermetik (SPKLren 107.1 art.).

Kontratu honen administrazio-klausula partikularren agiriko 8. klausula espezifikoa honako hau adierazten da: «8.2.- Behin betiko bermea: EZ, hura ez eskatzea justifikatzen duten arrazoi hauengatik: prezioa ordaindu baino lehen entregatu eta hartu behar diren ondasun kontsumigarrien hornidurak direlako (SPKL, 107.1 artikulua)».

SPKLren 107.1 artikulua baldintza bat jartzen du bermea eratzeko salbuespena aplikatzeko: «...prezioa ordaindu baino lehen entregatu eta hartu behar diren ondasun kontsumigarrien horniduren kasuan...». Egoera hori gertatzen da kontratu honetan. Kontratuaren objektua gas-hornidura da, zeina gasa banatzeko sarearen bidez iristen den kontsumo-puntuetara. Ordainketa ondoren egiten da, enpresa banatzailearen erregistro-sistematan benetan kontabilizatutako kontsumoaren arabera. Kontratu horri dagokionez, gertakari material hori AKPren 8.2 klausulan baieztatzen da.

Espedienteak:

- 29. Tolosaldeko pazienteentzako arreta espezializatua.





- 30. Asistentzia psikiatrikoa ospitalizazio-erregimenean.
- 31. Gipuzkoako osasun-barrutietako pazienteentzako arreta espezializatua.

A4 gabezia - Baldintza-agirietan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan ezarritakoarekin.

Eraginpeko 3 kontratazio-espedienteen administrazio-klausula partikularren agirien 16. atalak zehatz-mehatz eta zalantzarik gabe ezartzen du kontratuaren balizko aldaketaren norainokoa: identifikatu gabeko zerbitzuak sartzea edo prestazio-unitateen kopurua handitzea, sistemaren beharrak betetzeko behar den beste.

Gainera, kontuan hartu behar da kontratatutako prestazioak medikuntza-arlokoak direla. Ia ezinezkoa da kontratu baten indarraldian artatu beharko diren premia terapeutikoen alde aurreko definizio zehatza egitea. Covid-19aren esperientziak agerian uzten du batzuetan errealitate sanitarioak kontratuak prestazio berriekin egokitzea eskatzen duela (alde aurretik ez daudenak edo ezagutzen ez direnak), bai eta horien bolumena egokitzea ere.

SPKLren 204. artikuluko 1. Apartatuan adierazitakoari dagokionez, gure ustez, aurreikusitako aldaketek ez dute hasierako kontratuaren izaera orokorra aldatzen. Errealitate aldakor batera egokitzen da, medikuntza-beharrengatik. Ez dira ordeztzen eman beharreko zerbitzuak, ez ospitale baten funtzionamendu bateratuaren barruan beste zerbitzu berri batzuk sartzen, ezta prestazio-unitateak gehitzen ere. Kontratu mota ere ez da aldatzen.

Horregatik guztiagatik, uste dugu agiriko 16. ataleko baldintzak bat datozela SPKLren 204. artikuluan ezarritakoarekin.

32. Hemodialisi anbulatorioa dialisi-zentroan.

A9 gabezia - Ez du justifikatzen lizitazioaren oinarritzko aurrekontua zehazteko modua edo haren kalkulua (SPKLren 100.2).

32. espedientea hiru lote dituen kontratu bakarra da. Objektua bakarra denez eta hiru loteetarako kalkulua modu berean egin denez, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren banakatzea administrazio-klausula partikularren agiriko I.1 eranskinean jasota dago.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua kalkulatzeko, honako hauek hartu dira kontuan:

- Zuzeneko kostuak, langileen kostua, material sanitarioaren kontsumoa eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren farmaziako produktuak barne hartzen dituztenak. Horiek saioaren prezioaren % 77 dira.
- Zeharkako kostuak. Kostu horiek honako hauei dagozkie: zentroko dialisi-makinen eta altzarien mantentze-lanei, kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren uraren, argiaren eta gainerako kontsumigarrien kontsumoei, eta, azkenik, kanpoko zerbitzuei, hau da, instalazioen garbiketari, ikuztegiari eta pazienteen elikadurari. Kostu horiek zerbitzuaren prezioaren % 12 dira.





- Prezioaren egitura-gastu orokorrak (% 5) barne hartzen ditu instalazioen amortizazioa eta zerbitzua emateko amortizatu beharreko materiala.

Azkenik, industria-mozkinen % 6a jasotzen da.

VI.4.3 KONTRATU TXIKIAK

Izapidetze-prozedura desagokia.

Lehendakaritza - Telefono bidezko azterketei buruzko kontratuak.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bost kontratu hauek biltzen ditu, 73.697,96 euroko zenbatekoarekin:

- CM/DS/010/2022 - Zientziaren eta Teknologiaren Pertzepzio Sozialari buruzko telefono bidezko inkestak.
- CM/DS/097/2022 - Europar Batasunari buruzko pertzepzio eta iritziei buruzko telefono bidezko azterketa.
- CM/DS/122/2022 - Euskararen inguruko iritziei eta jarrerari buruzko telefono bidezko azterketa.
- CM/DS/033/2022 - Desgaitasunari buruzko telefono bidezko azterketa.
- CM/DS/111/2022 - Aniztasunari eta bizikidetzari buruzko azterketa, telefono bidezko 1300 inkesta.

Soziometroak eta egoera politikoaren azterketa kualitatiboak kontratatzeko, urteko kontratazio-espeditenteak egiten dira, prozedura irekiaren bidez. Azterketa horietarako, haien aldizkako beharra eta ezaugarri teknikoak aldeztetik ezagutzen dira, beraz, aurretiazko plangintzan oinarrituta egiten dira. Telefono bidezko beste azterketa batzuen kasuan (hemen aztertzen ditugunak), ezinezkoa da aldeztetik espeditente ireki bat egitea, ezezagunak baitira premia eta objektua, izaera (kualitatiboa edo kuantitatiboa), baita metodologia ere.

Kontuan izan behar da azterketa horiek urtean zehar sortzen diren egoera jakin batzuei eta premia zehatzei erantzuten dietela. Aurreikusi ezin diren premia horiei erantzuteko, haien ezaugarriak -objektua, ezaugarri teknikoak, aztertutako kolektiboak, biztanleria orokorra edo jarraipen soziodemografiko espezifikoak, ikerketa-lagina eta -teknika- kasuz kasu zehazten dira, azterketaren izaeraren arabera.

Behin ezaugarriak zehaztuta, zerbitzu-kontratu txiki bat ateratzen bada, 15.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duena, kontratu txikiko kontratazio-espeditente bat izapidetzen da, eta, horretarako, hiru enpresari eskaintzak eskatzen zaizkie, eta eskaintza ekonomikoenari adjudikatzen zaio.

Gure ustez, hori da zerbitzu mota horri erantzuteko prozedura egokia, ez baitute unitate tekniko edo ekonomikorik osatzen, eta ezinezkoa baita zerbitzu horiek taldekatzea, helburu ezberdinak dituztelako, une ezberdinetan egiten direlako eta ezaugarri ezberdinekin gauzatzen direlako. Arrazoi horiengatik uste dugu, halaber, taldekatzea artifizia eta





efizientziarik gabea izango litzatekeela, aldez aurretiko plangintza ere ezinezkoa izango litzateke eta.

Lehendakaritza - Hornidura-kontratua.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bi hornidura-kontratu txiki hauek biltzen ditu, 27.525,25 euroko zenbatekoarekin:

- CM/DS/041/2022 Ajuria-Enea jauregirako bi IP kamera erostea.
- CM/DS/0421/2022 Lehendakaritzaren eraikineko TBZI sistemarako grabagailua erostea.

CM/DS/041/2022 espedienteak izapidetzean, hornidura-kontratu txiki gisa, aurrekontuak eskatu zaizkie sektorean espezializatutako bi enpresari. Bi aurrekontuak jaso ondoren, aurrekonturik ekonomikoenari adjudikatu zitzaion kontratua.

CM/DS/042/2022 espedienteak kontratu txiki gisa izapidetzearen helburua TBZI sistemarako grabagailu bat erostea da, aurreko grabagailuaren lizentziak migratzea premiazkoa da eta, zaharkituta geratu baitira. Espediente horretan aurrekontua eskatu zitzaion grabagailua bere garaian instalatu zuen enpresari, BVMS kudeaketa zentralizatuko softwarea hornitzen duen operadore ekonomikoa delako.

Espedienteetan ikus daitekeenez, zerbitzu eta objektu ezberdinak dira, kasu batean 2 IP kamera eta bestean TBZI sistemarako grabagailu bat, jatorrian operadore ekonomiko adjudikaziodunak instalatua, eta inola ere ezin da esan unitate tekniko edo ekonomiko bat osatzen dutenik. Beharrak une ezberdinetan eta eraikin ezberdinetarako sortzen dira. Gainera, kontratuak bat lehendik dagoen aplikazio baten migrazioari dagokio, eta teknikoki operadore berak egin behar du.

Ondorioz, gure ustez, bi kontratuak kontratu txikien baldintzak betetzen dituzte, eta, beraz, ez ziren elkartu behar.

Ekonomia eta Ogasun Saila - Funtzio anitzeko ekipoen eta kontsumigarrien mantentze-lanak.

HKEEk detektatutako 4 kasuetan, funtzio anitzeko ekipok eta kontsumigarriak mantentzeko zerbitzuei dagozkienetan (68.150 euro guztira), horien arrazoizkotasuna justifikatzen duen txosten teknikoa dago: Sailak (jabetzan) aldez aurretik erositako funtzio anitzeko ekipoen parkearen mantentze-lana da, eta bertan hasierako bermeari eusten zaio.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila: barrualdea egokitzea, Henao 9.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hiru kontratu hauek biltzen ditu, 54.446,37 euroko zenbatekoarekin:

- Arkitektura-obraren proiektua eta zuzendaritza, barrualdea egokitzea, Henao 9.
- Beste instalazio batzuen proiektua eta zuzendaritza, barrualdea egokitzea, Henao 9.
- Telekomunikazio-proiektua, barrualdea egokitzea, Henao 9.



Honako gogoeta hauen ondoriozkoa da eraikinaren barrualdea egokitzeko obren definizio-eta jarraipen-lanak kontratatze prozedura:

- Bizkaiko Probintzia Fiskaltzak espazio premia izanik, birgaitze- eta handitze-lanak amaitu bezain laster hasi behar izan ziren barrualdea egokitzeko obrak, 2022ko azaroaren 29an. Ondorioz, jarduketan definizio-proiektuak ahalik eta azkarren eskuragarri egon behar ziren, obra horiek data hori baino lehen lizitatu, adjudikatu eta formalizatu ahal izateko.
- Proiektu horiek egiteko, eraikinaren as built -eraikitakoaren arabera- dokumentazioa eskatzen zen, eta dokumentazio hori ez da zertzen, harik eta aipatutako birgaitze- eta handitze-lanak benetan amaitu arte. Hala, obra horiek amaitu aurretik eraikinaren errealitatea ezagutzen zuten teknikari bakarrak indarreko zerbitzu-kontratuan parte hartzen zutenak ziren (arkitekturako taldea eta hark azpikontratutako telekomunikazio-ingeniaritza eta instalazioak).
- Birgaitze- eta handitze-obren proiektuetan eta zuzendaritzan parte hartzen ez zuten teknikariak sartzeak lanbide-erantzukizunen gatazka ekarriko zukeen. Izan ere, horiek eskaintako bermea galtzea ekarriko luke, barrualdea egokitzeko ondorengo esku-hartzeek aldatzen duten guztian (eraikineko 13 solairuetatik 7ren banaketa eta instalazioak, hau da, eraikinaren % 50ean baino gehiagoan).

Eraikinaren barrualdea egokitzeko proiektuak idazteko premia kontuan hartuta (obra-kontratua 2022ko azaroaren 29a baino lehen lizitatu, adjudikatu eta formalizatu behar zelako), 3 kontratu txikiren bidez kontratatzea proposatu zen. Kontratu horiek eduki autonomia dute, eta, beraz, kontratazio independentea egin daiteke. Kontratu horietako bakoitzak objektuari lotutako jarduketa guztiak jasotzen ditu (zatikatu gabe):

- Arkitektura-proiektua idaztea eta proiektu horretan jasotako jarduketan obra-zuzendaritza: bulego irekiko espazioaren banaketa - konpartimentazioa zehaztea (Bizkaiko EATren tipologia) 45 bulegotan, idazkaritzako bulego-aurrea, bisita-gela, erabilera anitzeko bi gela, bi bilera-gela eta eraikineko komunikazio bertikaleko 2 gunetatik haietara sartzeko korridoreak (Fiskaltzaren beharren arabeko hornidura).
- Telekomunikazio-proiektua idaztea eta bertan jasotako jarduketak zuzentzea: eraikineko telekomunikazio-instalazioetan espazioaren banaketa berrira egokitzeko egin beharreko aldaketak zehaztuz, bereziki ahots- eta datu-instalazioei (rack-birdimentsionatzea eta entxufeak lekuz aldatzea) eta suteen eta sartze bidegabeen aurkako segurtasun-instalazioei (detektagailuak, sakagailuak, etab., lekuz aldatzea) dagokienez.
- Beste instalazio batzuen proiektua idaztea eta bertan jasotako jarduketak zuzentzea: era berean, espazioaren banaketa berrira egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak deskribatzea, airea girotzeko eta aireztapeneko instalazioetan (estalkiko ekipoak birdimentsionatzea, aire-hoditerien trazadura aldatzea, sabaiko split-ak, airearen bulkatze- eta erauzte-hoditeriak, etab., gehitzea), argiztapen-instalazioetan (luminariak kalkulatzeko, handitzea eta lekuz aldatzea) eta elektrizitate-instalazioetan (pizte-sistemak eta entxufeak eta ekipoak elikatze harguneak lekuz aldatzea).

Bestalde, indarrean dagoen zerbitzu-kontratuan parte hartzen ez duen teknikaririk ez sartzeko (as built dokumentazioa eduki arte jarduketak egiteko ezintasuna, eta lanbide-





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

erantzukizunen gatazka) azaldutako arrazoiak oinarri hartuta, hiru kontratuak enpresei adjudikatzea proposatu zen (instalazioetarako 2 kontratuak, aipatu den bezala, indarrean dagoen kontratuan arkitektura-taldeak azpikontrataturakoak dira), eta, horrela, horien arteko koordinazioa ere bermatuta geratu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila - Radio Taxi.

Jasota uzten da 2022an zehar izapidetu dela «Vitoria-Gasteizko organo judizialetako langileen garraiorako» 36/2022-A kontratazio-espeditentea, 2023., 2024. eta 2025. urteetarako.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila - Bulego-materiala.

Jasota uzten da 2022an zehar izapidetu dela bulego-materiala hornitzeko 41/2022-A kontratazio-espeditentea. Kontratua 2022ko uztailaren 28an sinatu zen, 2023., 2024. eta 2025. urteetarako.



ABREVIATURAS

ACG	Acuerdo de Consejo de Gobierno.
ADIF	Administrador de Infraestructuras Ferroviarias.
AGE	Administración General del Estado.
BERC	Basque Excellence Research Centre.
CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CMCE	Comisión Mixta del Concierto Económico.
DDFF	Diputaciones Forales.
EELL	Entidades Locales.
ETS	Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.
FEADER	Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural.
FEAGA	Fondo Europeo Agrario de Garantía.
FEDER	Fondo Europeo de Desarrollo Regional.
FEMP	Fondo Europeo Marítimo y de Pesca.
FSE	Fondo Social Europeo.
GOVA	Gobierno Vasco.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LOEPSF	Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.
LPGCAE	Ley 11/2021, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2022.
MRR	Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.
NRFPV	Nueva Red Ferroviaria del País Vasco.
OCE	Oficina de Control Económico.
PCPCAE	Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Orden de 25 de junio de 2012, del consejero de Economía y Hacienda.
PIIE	Plan Interinstitucional de Inversiones Estratégicas 2022-2024.
PRTR	Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
PYMES	Pequeñas y Medianas Empresas.
RGLCAP	Reglamento general de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
RTSU	Red de transporte sanitario urgente.
SGR	Sociedad de Garantía Recíproca.





TH	Territorio Histórico.
TRLCEC	Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
TRLPOHGPV	Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
TRRPE	Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
UE	Unión Europea.
UPV/EHU	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, conforme a lo establecido en la Ley 1/1988 de 5 de febrero, reguladora del mismo y en su Programa Anual de Trabajo, ha realizado este informe de fiscalización de las cuentas anuales de la Administración General de la CAE para el ejercicio 2022.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas relativas al presupuesto, endeudamiento, operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, concesión de subvenciones y ayudas públicas, ingresos de derecho público y transparencia.
- Contables: se analiza si las cuentas anuales se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.

El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

De conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, los resultados provisionales de este trabajo se trasladaron el 20 de diciembre de 2022 a la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda del GOVA para que los interesados pudieran realizar las alegaciones y aportar los documentos que considerasen convenientes en relación con la fiscalización realizada.

Todas las alegaciones han sido analizadas y valoradas, suprimiéndose o modificándose el texto del Informe cuando así se ha estimado conveniente, y manteniéndose si se ha considerado que son explicaciones que confirman la situación descrita en el Informe o si no se comparten las justificaciones o si no se justifican documentalmente las afirmaciones mantenidas. Estas alegaciones se adjuntan a este Informe.



II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra opinión, excepto por los incumplimientos descritos en el siguiente apartado de Fundamento de la opinión, la Administración General de la CAE ha cumplido razonablemente, en el ejercicio 2022, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

En nuestra opinión, considerando lo expuesto en las Notas 1 a 4 recogidas en la Liquidación del Presupuesto de 2022, las cuentas anuales de la Administración General de la CAE expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la entidad a 31 de diciembre de 2022, así como de sus resultados y flujos de efectivo y del estado de liquidación del presupuesto correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables y presupuestarios contenidos en el mismo.

III. FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN

Hemos llevado a cabo nuestro trabajo de conformidad con los Principios fundamentales de fiscalización y las Normas Internacionales de Auditoría adaptadas al Sector Público. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en el apartado V Responsabilidad del TVCP.

Somos independientes de la Administración General de la CAE de conformidad con los requerimientos de ética y protección de la independencia que son aplicables a nuestra fiscalización según lo exigido por la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y la normativa reguladora de la actividad de fiscalización pública.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión sobre las cuentas anuales favorable y sobre el cumplimiento de la legalidad con salvedades.

III.1 FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1.- Dos expedientes de obras en centros escolares (números 21 y 22), adjudicados por un importe de 794.607 y 102.904 euros, respectivamente, se han tramitado por el procedimiento excepcional de emergencia, previsto en el artículo 120 de la LCSP, sin que quede debidamente justificada la utilización de dicho procedimiento, por la falta de inmediatez en la ejecución de las actuaciones a realizar (deficiencia A8 del anexo A.19).

2.- Los Consejos de Gobierno de 3 de mayo, 28 de junio y 18 de octubre de 2022, así como de 31 de enero y 7 de marzo de 2023, han autorizado por el procedimiento excepcional previsto en el artículo 24.4 del TRLCEC, el pago de obligaciones reconocidas en el ejercicio





